MUBIL FUNDAZIOAK ESKUZAITZETA INDUSTRIALDEAN DUEN BEHIN BETIKO EGOITZAREN HARRERA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (MUBIL2024-010 ESPEDIENTEA)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da MUBIL Fundazioaren behin betiko egoitzaren harrera-zerbitzua kontratatzea. Egoitza, bada, Eskuzaitzeta industrialdean dago (Oianguren 1, 20160 Zubieta-Donostia).

2. ERAIKINAREN TESTUINGURUA

MUBIL Mugikortasun Adimendun eta Jasangarriaren Poloaren helburu nagusia da Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimendun eta jasangarriaren nazioarteko erreferentzia-polo bihurtzea. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, MUBILek egoitza berri bat du, lehen mailako mugikortasun adimendun eta jasangarriko azpiegitura teknologikoarekin. Egoitzan, gainera, enpresen eta zentro teknologikoen ekosistema bat dago. Eraikina Eskuzaitzetan (Zubieta-Donostia) dago, hain zuzen ere, MUBIL Poloan (50 km^2-ko ingurune bat da). Datozen hilabeteetan, beste industria-eragile eta teknologia-zentro batzuk ere jarriko dira bertan. Horrela, mugikortasunaren arloko berrikuntza-garapenen inguruko ekosistema garrantzitsu bat egongo da gune jakin batean.

MUBIL Fundazioko pertsonak dauden eraikinak 10.000 m^2 inguru ditu. Lan-bulegoen gune bat dago eta hainbat enpresa ezarriko dira bertan. Aldi berean, eraikinak hiru laborategi teknologiko ditu, oso ekipamendu garrantzitsuarekin, bezero desberdinei zerbitzua emateko. Hiru laborategi horiek bi kudeatzaile teknologikok kudeatzen dituzte. Eraikinak 99 lagunentzako erabilera anitzeko gela bat eta 50 lagunentzako hainbat prestakuntza-areto ditu. Helburua da MUBIL Fundazioaren ekosistemaren barruan dauden eragileekin ekitaldiak, jardunaldiak eta bestelako jarduerak egitea.

3. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Hori horrela izanik, harrera-zerbitzu bat kontratatu beharra dago, MUBIL Fundazioaren egoitzan dauden edo harekin elkarreragina duten pertsona guztiei kalitatezko arreta profesionala emateko.

Horretarako, beste funtzio batzuen artean, jarraian adierazten diren jarduerak biltzen ditu zerbitzuak:

1. Ateak irekitzea, hasierako arreta ematea eta eraikinera sartzen diren pertsona guztien sarrera-erregistroa egitea.
2. MUBIL Fundazioaren egoitzako arduradunarekin harremanetan jartzea, bisiten edo eraikinera sartzen diren enpresa kontratatuen kasuan.

3. Txartelak eta baimenak prestatzea, bai eraikineko langileenak, bai MUBIL Fundazioaren egoitzan lan egingo duten kontratetako langileenak.
4. Eraikineko garajeetan sartzeko eta horietatik irteteko baimenak kudeatzea.
5. Eraikinean sartzeko eta hortik ateratzeko eremuak irekitzea eta ixtea.
6. Telefono nagusiaz arduratzea eta, ondoren, deia dagokion pertsonari desbideratzea.
7. MUBIL Fundazioaren egoitzan jasotzen den paketeria profesionala hartzea eta hartzailearekin harremanetan jartzea.
8. Bilera-gelen eta beharrezkoak diren beste eremu komun batzuen erreserbak kudeatzea.
9. MUBIL Fundazioaren egoitzan egiten diren jardunaldi, bilera, dinamika edo ekitaldietan, bertaratzen direnen harrera egitea.

4. ZERBITZUA EMATEA

4.1 OROKORRA

- Zereginetarako ordutegia 8:00etatik 16:00etara da.
- Zerbitzuak laneguneta egingo dira (astelehenetik ostiralera, MUBIL Fundazioko langileen lan-egutegiko jaiegun ofizialak izan ezik).

4.2 BESTE XEDAPEN BATZUK

- Enpresa adjudikaziodunak solaskide bakarra izendatuko du kontratuaren jarraipena egiteko eta kontratua koordinatzeko.
- Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua ematen duten langileen absentzia guztiak ordeztu beharko ditu, absentzia horiek izateko arrazoia edozein dela ere.
- Era berean, enpresa adjudikaziodunak indarreko legeria beteko du kontratua gauzatzean, eta, zehazki, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.

4.3 LAN-HARREMANETIK KANPO UZTEA

Mubil Fundazioak erabiltzen ez duen ordenagailu bat du bulegoan, zerbitzuaren prestazioa gauzatzeko erabili ahalko dena, enpresa adjudikaziodunak hala nahiko balu. Erabiliko den ordenagailuak ez du Mubil-en inolako bereizgarririk edukiko, eta enpresa adjudikaziodunak konfiguratu beharko du.

Zerbitzu profesionalaren prestazioan, inongo kasutan ezingo da eratorri inolako lan harremanik dagoenik enpresa adjudikazioduneko langileekin, edo enpresa adjudikaziodunarekin bararekin, hura pertsona fisikoa bada.

Aurrez adierazitakoa bermatzeko, MUBIL Fundazioko pertsona arduraduna eta enpresa adjudikaziodunean kontratuaren arduraduna izango den pertsona helburu honetarako bideratuko den

posta elektronikoaren bidez komunikatuko dira, zerbitzuaren gauzatze egokirako jarraibideak eta indikazioak adoste aldera.

44128753X IGOR VILLARREAL (R: G75223388)

Digitalki sinatuta norengandik: 44128753X IGOR VILLARREAL (R: G75223388)
Data: 2024.10.29 10:25:31 +01'00'

Igor Villarreal Sarria
MUBIL Fundazioko zuzendaria